



BARREN

TOKIKOM

# Sokari tiraka, Txinaraino



# LEHIAKETA!



**BARREN** beti gainean

25. urteurrenaren harira,  
'Barren beti gainean'  
argazki lehiaketa  
antolatu du BARRENEK.



**Apirilaren 13ra arteko epea** daukazu  
BARREN zenbaki batekin argazkia ateratzeko.

Parte hartzen duzuen guztion artean  
Errigorak emandako bi otar zozketatuko ditugu,  
eta apirilaren 20ko zenbakian emango dugu irabazleen berri.



Argazkiak bidali honako helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus). Argazki guztiak [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean zintzilikatuko ditugu.



HH2-LH2

## UDABERRI FESTA

MARTXOAREN 24an, 12:00etan

Kalegoen Plazan



## Iragan hurbila

**BARRENEN hemerotekan arakatzen ibiltzeko astia hartzen duenak mila bitxikeria topa ditzake, eta urteurren hau horretarako baliatu nahi dugu geuk ere. Bila hasi gara, eta BARRENEN sorrerarekin batera notizia izan ziren beste bi albiste ekarri ditugu hona.**

**N**ork esango luke, baina gure bueltan ditugun azpiegitura nagusienetako bik BARRENek beste urte dituzte: Mintxeta kirol-guneak eta Mendaroko Ospitalak. BARRENek zazpigarren alean aurreratu zituen Mintxetaren inguruko jakingarri nagusiak, 1993ko urtarrilaren 22ko zenbakian, BARRENen historiako bigarrenean. *Mintxeta, kirolarien esperantza* izenburupean argitaratu genuen erreportajea, Juan Mugertza Nazioarteko Krosa jokatzen aste berean.

Proiektu handia zen ordurako, eta izenburuak zioen moduan, esperantza bat herriko kirolari askorentzat, bereziki futbolarietaz eta atletismoan aritzen zirenentzako. Batetik, ordura arte Lerungo futbol zelaiaren jokatzen zuten elgoibartarrak futbol zelai barik gelditu zirelako, Lerunen industrialdea eraikitzeko proiektua idatzia zegoelako, eta bestetik, entrenamenduetarako azpiegitura egokirik gabe, San Rokeko pista beltzean entrenatzen zirelako herriko atletak, prekarioan. Albiste nagusia izan zen, jakina, Mintxetari buruzkoa, eta ez alferrik, esan bezala Juan Mugertza Nazioarteko Krosa ere estreinakoz Mintxetan jokatzea zelako aste hartan. Hemerotekara jo dugu haren bila eta han topatu dugu hiru elgoibartar lehiatu zirela kros hartan: Alberto Revuelta eta Javi Santamaria juniorretan, eta Santi Maiztegi, seniorretan. Hain zuzen ere, Alberto Revuelta, gerora horrenbeste lorpen bildu dituen mutila, izan zen Mugertza Memorialeko podiumera igo zen lehenengo elgoibartarra. Bigarren egin zuen bere kategorian Revueltak. Guztira, 179 korrikalari lehiatu ziren krolean, eta 4.000-5.000 ikusle inguru izan ziren, antolatzaileek emandako datuen arabera. Sareretatik 1,5 milioi pezeta bildu zituzten antolatzaileek, 500 ogitarteko saldu zituzten Club Deportivoaren tabernan, eta hamahiru milioi pezetako aurrekontua izan zuen guztira Mintxetan jokatzen zuten estreinakoz krosak.

Horiek BARRENen zazpigarren zenbakiko kontuak. Bada, zortzigarren azken urteotan Debabarrenean eraiki den azpiegitura nagusiari eskaini genion: Mendaroko Ospitalari. *Osasuna gertuago* zioen azaleko titular na-

gusiak. Ordura arte osasun zerbitzu espezializatu guztiak Donostiako Arantzazuko Amaren Ospitalean jasotzen genituen debabarrendarrok, eta pentsa zer nolako aurrerapena izan zen zerbitzu horiek guztiak Mendarora ekartzea. 102 oherekin zabaldu zuten ospitala eta 291 langileri eman zien lana. Langile haien batez besteko adinak ere atentzioa eman digu. 30 urte zituzten batez beste. Zenbaki hartan umeaz erditu berri zen elgoibartar baten hitzak ere jaso genituen. Ana Zabaleta elgoibartarra izan zen Mendaroko Ospitalean ama izan zen aurreneko elgoibartarretako bat. Urtarrilaren 20an jaio zen Adrian Nijs Zabaleta, Anaren semea, ospitala ireki eta hiru bat hilabetera. Erreportajearen ama-semeak ageri dira, ospitaleko gelan. Gaur, 25 urte geroago, saiatu gara ama-semeak berriz gure orrialde honetara ekartzen, baina nahiago izan dute gordean mantendu. Hala ere, ondo go-goan du argazki hura Anak, eta ez da harrizkoa, ama batek sekula ahaztuko ez duen eguneko argazkia izanda.



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



## Gizatasuna

kastetxeetako patioa gertaerak seme-alaben ahotan entzuten ditugunok kezkatuta bizi gara. Ikastetxean gatazkak nola lantzen diren galdetzen dugu, eta noizbehinka, gerturatuko gara hitzaldi edo solasaldiren batera.

Baina dugun ikuspegi indibidualistatik ezin dugu ulertu benetan gertatzen dena. Egunero patioan gertatzen denak badu imitazio kutsu bat kontuan hartu behar du-

guna. Patioan gure seme-alabak gizarteratzen ari dira, eta horretarako, gudan eta gizar-tean baliozkotzat ulertu dituzten estrategiak jarriko dituzte mar-tan. Gure zirkulu sozialetik kanpo daudela ulertzen dugunekin dugun jarrera errezelozkoa bada, eta gure jo-kaerak haiek gure mundutik "kanpo" dau-dela azpimarratzen badu, gure seme-alabek patioan horixe bera errepik-akuko dute, modu zuzenagoan (ez dituz-telako helduok ditugun disimulurako estrategiak). Gakoa da geure irudikap-ean haiek eta gu gaudela, bereizita.

Inor asaldatu eta bere burua defen-datu nahian hasi aurretik, gauza bat argitu nahi nuke; prozesu haiek inkontzientek dira, automatizatuak ditugu (matxismoare-nak bezala), nahigabe ateratzen dira.

Madriken gertatzen ari direnak albiste-

gian ikustean berezko inpultsoa izango da gure gizar-tean ordena mantendu nahian dabiltzan zuriak defendatzeko argumen-tuak bilatzearena; ilegalak direnak, etxe-bizitzetan pilatuak bizi direnak, gure zaborretatik bizi direnak, ez ditugu gure pareko gizaki modura identifikatzen; ez ditugu gure talde sozialean barneratzen gizarte berdineko kide modura.

Horrela, ezberdina bezala identifika-tzen dugunarekiko jarrera bat islatzen dugu; pertsona izate hutsarekin gizata-suna eman ordez. Hau egingo bagenu, enpatia piztuko litzateke gudan eta geure lagunarteko batek hanka-sartze bat egiten duenean bezala testuinguruan bere akzio negatiboaren kausak bilatzen hasiko gina-teke, bere ontasuna auzitan jarri gabe.

Beraz, ondorengoak gizatasunez jo-katzea nahi badugu, hasi gaitezen geure gizatasuna berrikusten.

*"Ondorengoak gizatasunez jokatzea nahi badugu,  
hasi gaitezen geure gizatasuna berrikusten"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Lehenengo Espangoneta

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZE-TARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLI-ZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpil-laga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odiozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreaz-aldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
UROLA  
KUNTZARENTZAKO

LAGUNTZAILEAK:



MENDAROKO



Gipuzkoako Foru Aholkaria

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKERRIK ASKO

Mendaroko odol emaileen izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu Mendaroko herritarrei, joan zen ostiraleko deialdiak izan zuen erantzuna mirestekoa izan zelako. Azkeneko odol ateratzera 90 lagun hurbildu ziren guztira, eta horietatik 73k eman zuten odola. Arazo ezberdinak tarteko, beste bost lagun odolrik eman gabe geratu ziren, eta beste hamahiru bat lagun odola ateratzeko aukerarik gabe joan behar izan ziren etxera. Esan beharra daukagu, esanguratsua baita oso, hermeretzi odol emaile berri etorri zitzaizkigula eta horrek egoera korapilatu zuela. Lehenengo aldiz ematen dutenek medikuarekin izaten duten elkarrizketa osoagoa izaten da, eta ondorioz, denbora gehiago behar izaten du medikuak haietako bakoitzarekin. Eta horrek luzatu egin zuen prozesua, eta azken ordua etorri ziren hamahiru bat laguni ezin izan zitzaizen odolrik atera. Aurreikuspen onenak ere bete egin ziren, eta gain hartu zigun egoerak, baina herritarrek emandako erantzuna azpimarra-

garria izan zen. Gertatutakoak ikusita, agindu digute uztailean egingo den odol ateratzeko baliabide gehiago jarriko dituztela eta beste mediku bat eta beste oheren bat gehiago ekarriko dutela. Beraz, lerro hauen bidez, uztailean berriro odola ematera gertatuzeko animatu nahi zaituztegu, eta era berean, barkamena eskatu joan zen ostiraleko nahasmenduarengatik. Mila esker, Mendaro. Aupa gu! Eman odola, eman bizia!

### Mendaroko Odol Emaileen Elkarte

### ► OHARRA

Datorren astean, martxoaren 31n, ez da BARRENik izango, Aste Santuko jai zubia dela-eta. Hurrengo zenbakia apirilaren 6an jasoko duzue. Apirilaren 6ko ale horretan zorion-agurren bat argitaratu nahi duzuenok, beraz, gogoratu apirilaren 4ko eguerdira arteko epea izango duzuela horretarako.

BARREN

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



## Gonzalo Gallego Peleato

2018ko martxoaren 20an hil zen, 73 urte zituela.

*Triste gaude orain, joan zarelako,  
baina ez gara luzaroan horrela egongo.*

*Denbora pasatuko da eta zure irribarreak eramango ditu gure malkoak.*

*Parrez gogoratuko zaitugu, alai, brometan, historiaok kontatzen.*

*Horrela izan zarelako, horrela egin gaituzulako zurekin.*

*Beti gure gogoetan, betiarte Gonzalo!*

Sendiak eta lagunek bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
bai eta ekitaldi zibileragertu izana ere.

## DanobatGroup kooperatibak eskuratu du Gipuzkoako Enpresaren Saria

Gipuzkoako Bazkun-deak aberastasunaren eta enpleguaren sortzaile gisa enpresek egiten duten lana saritzen du urtero, eta aurten, DanobatGroupi eman diote sari nagusia. "DNA berritzailegatik eta industriari aplikatutako digitalizazioaren alde egindako apustuagatik" saritu dute Elgoibarko kooperatiba. Era berean, erronkak soluziotan eraldatzeko izan duen gaitasunagatik eta 4.0 industriaren kontzeptuak euren produktuen garapenean sartu izanagatik ere nabarmendu dute DanobatGroup. Informazio eta komunikazioko teknologiak fabrikazio inguruneetan txertatzeko egindako prozesuagatik ere goratu dute, horrek makina-erremintei egotzizko traba fisikoak amaitzea ekarri duelako. Saria Pello Rodriguezek jaso zuen, DanobatGroupeko zuzendari nagusiak. Rodriguezen esanetan sari hau aitortza bat da DanobatGroupen egindako ibilbideari: "Berrikuntzan eta DanobatGroup osatzen duten kooperatiben arteko lankidetzak sustatzen egindako urteetako lanari egindako aitortza da".

DanobatGroupek 1.300 laguni ematen die lana egun, eta inguru hurbilean aberastasuna eta enplegua sortzeaz gainera, kulturako, gizarteko, kiroleko eta ingurumeneko ekimenetan ere laguntzen du. Negozioari dagokionean, fakturazioaren %90 kanpoko merkatutik dator, eta lantegi propioak ere badiu hainbat herrialdetan: Alemanian, Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan. Horrez gain, ordezkaritzak ditu Indian, Errusian, Australian, Txinan eta Italian.



### Aisialdiko begirale titulua euskaraz lortzeko diru-laguntzak

Aisialdiko begirale titulua ateratzeko ikastaroa euskaraz egiten duten mendarorrei matrikularen erdia ordainduko die Mendaroko Udalak (gehienez 250 eurokoa izango da laguntza). Diru-laguntza eskatzeko hainbat baldintza bete behar ditu eskatzaileak, tartean hauek: 21 urte beteak izatea edo 21 urtez gora izatea, Bigarren Heziketaldia edo horren baliokide den beste mailaren bat gaitinduta izatea eta Mendaron erroldatuta egotea. ([www.mendaro.eus](http://www.mendaro.eus)).

### Bideojokoak sortzeko tailerrak, Mendaron

8 eta 15 urte bitarteko Debarrenako 70 gazte baino gehiagok eman dute izena Aste Santuko oporraldian Deban, Eibarren, Mendaron, Mutrikun eta Soraluzen egingo diren bideojokoak sortzeko tailerretarako, eta horietatik %22 neskak izan dira. Mendaron martxoaren 26tik 28ra egingo dira tailerrak, eta izena emateko epea zabalik dago oraindik. 8 eta 15 urte bitarteko mendarorrek [www.gazterobotika.eus](http://www.gazterobotika.eus) atarieren bidez eman behar dute izena. Prezioa: 18 eurokoa da. Debegesak eta udalek sustatu dituzte tailerrok.

## Altasuko gazteei elkartasuna agertu zieten barixakuan Elgoibarren



Altasuko gazteei eta haien senide eta lagunei elkartasuna agertzeko eta epaiketaren bidegabekeria salatzen joan zen barixakuan Elgoibarren, Kultur Etxe aurrean. Apirillean dute hastekoa gazteen kontrako epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalan.

## Anbolo Eguna antolatu dute Elgoibarko Udalak eta herriko hainbat gaztek apirilaren 21erako

Elgoibarko gazte kuadrillak elkarren artean harremantzeko eta gazteen "benetako parte-hartzea" sustatzeko, Anbolo Eguna antolatu dute Elgoibarko Udaleko Haur, Nerabe eta Gazte-ria Sustapenerako Sailak eta 18-31 urte bitarteko dozena bat gaztek apirilaren 21erako. Gazteentzako eguna izango da, eta egitarau oparoa osatu dute, herriko beste hainbat eragileren laguntzarekin, tartean Morkaiko Mendizale Elkartearen eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolaren laguntzarekin. Anbolo izena jarri diote egunari, Elgoibarren horren ospetsu egin zen izen bereko loroarekin gogoratuta.

Kalegoen plazan hasiko dute eguna gazteek, han kokatuko duten abentura parkean. Morkaikokoen laguntzaz, tirolina jarriko dute San Bartolome elizatik plaza erdira, eta eskalada egiteko eta futbolin erraldoian jokatzeko aukera ere izango dute. Txupinazoa botako dute gero, eta Anbolo jaitsiko da Elizako balkoitik behera. Ondoren, kalejiran irtengo dira, eta 15:00etan, elkarrekin bazkalduko dute Maalako parkean. Bazkaritarako txartelak Internetez eskuratu beharko dira,

[www.labur.eus/anboloeguna](http://www.labur.eus/anboloeguna) webgunean, 17 euroan. Barka nahiz taldeka eman ahal izango da izena, apirilaren 8a aurretik, eta bi menu izango dira aukeran, tartean barazki-jaleentzakoak. Bazkariko txartelarekin batera, ondoren egingo duten bingo solidarioan parte hartzeko txartel bat ere banatuko dute. Izan ere, bingoa izango da bazkalosterako lehen plana. Bingoan bildutako diruaren erdia saritan banatuko dute han bertan, eta gainerako dirua Nuala elkarteari emango diote [Nuala elkarteak 2017an sortu zuten Elgoibarren aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioaren alde egiteko].

Arratsalde-iluntze partea dantza ikuskizunek eta musikak berteko dute. DJ IonSan-ek dantza-saioa eskainiko du, eta ondoren, kalejiran abiatuko dira berriro kalean gora, Kalegoen plazaraino. Inazio Bereziartua Musika Eskolako BetiSUA txarangak jarriko du musika, eta Lorituaneko aldapan, geldialdia egingo dute, talde argazkia egiteko. Iluntzean, Maalan batuko dira berriro. Kontzertuen gunea izango da. Nerabe taldeak hasiko du gaua, eta Little Selektak DJak eta DJ Jotaxok jarraituko diote gero.

## Moja klaratarrei agur esateko ekitaldia antolatu du Elgoibarko kristau elkarteak biharko



Apirilaren 7an lagako dute Santa Klarako komentua moja klaratarrek, eta haiei agur esateko, ekitaldi berezia antolatu du Elgoibarko kristau elkarteak biharko. San Bartolome parrokiaren izango da ekitaldia, 19:00etako mezan. Ospakizunean, Elgoibarko Udal Musika Bandak, Parrokiako abesbatzak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak hartuko dute parte. Moja klaratarrek 484 urtez egon dira Elgoibarren.

1533ko irailaren 8an Oñatiko Bidaurreta monastegitik etorri ziren mojek osatu zuten klaratarren lehenengo komunitatea. Mokek bi aldiz ihes egin behar izan zuten gerora Elgoibartik, gerren ondorioz: 1794an eta 1937an. 1957an neskentzako eskola ireki zuten, eta 1973ra arte egon zen zabalik. 1976. urteko abenduaren 18an komentu berria estreinatu zuten, gaur egungoa. Lehen goaren ondoan eraikitako eraikin modernoa da egungoa.

## Merkataritza biziberritzeko plana abiatu du Elgoibarko Udalak

Herriko merkataritza biziberritzeko plana abiatu du Elgoibarko Udalak Eusko Jaurlaritza, Txankakua merkataritza elkarteak eta Barren azoka elkartearekin elkarlanean. Ostalaritza eta zerbitzuen sektorea "lehiakorrago eta profesionalago" egin nahi dute, eta horretarako diagnosi bat egingo du aurrena Iker-talde Talde Aholkulariak. 350 inkesta egingo ditu horretarako, telefono bidez eta kalean, eta herriko dendari, tabernari eta zerbitzuetako profesionalekin aurreko elkarrizketak egingo dituzte. Mahai inguruak ere egingo dituzte profesional horiekin eta bildutako informazio guztia proiektu honetarako sortutako webgune berezian eskegiko dute (Elgoibarko Udalen webgunetik sartu ahal izango da). Norbaitek beste argibideren bat beharko balu, telefono zenbaki bat ere jarri du Udalak herritarren eskura: 943 423 261.

## Elgoibarren jarri dute abian 'Etxean bizi' programa, Gipuzkoan estreinakoz

Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen zuzendutako Foru Aldundiko *Etxean bizi* programa pilotua Elgoibarren jarri dute abian, Gipuzkoan estreinakoz. Adinekoen bizi-kalitatea ondu eta adinekoek euren etxeetan bizitzeko jarrai dezaten bilatzen du programak. Horretarako, erabiltzaileen nahiz haien zaintza arduratzen direnen behar eta lehentasunen arabera osasun eta gizarte arloko arreta integratua bermatu diete. Ikerketa-ekintza bat diseinatu dute hainbat ereduaren eraginkortasunari buruzko informazioarekin eta esperientzia Elgoibarren abiarazi dute. Programaren harira administrazioek eta gizarteak duen papera eta erantzukizuna azpimarratu ditu Ane Beitia alkateak: "Gure nagusien ongizatea, guztion ardura da".

Gaur, martxoak 23, 19:00etan, Musika Eskolako auditoriumean, programaren aurkezpen publikoa egingo dute. Ane Beitia Elgoibarko alkateak, Maite Peña Gizarte Politika Diputatuak, Mayte Sancho Matia Fundazioko Planifikazio zuzendariak eta Udaleko Ongizate Zerbitzuko saileko teknikariek azalduko dituzte programaren nondik norakoak eta herritar guztiak gonbidatu dituzte aurkezpen-ekitaldira.

Gaur egun, Elgoibarko biztanleen %22k 65 urtetik gora dituzte, eta 80 urtetik gora, biztanleria osoaren %8ak. Eustaten arabera, 80 urtetik gorakoak 50.000 baino gehiago dira Gipuzkoan, 2000. urteko kopuruaren bikoitza, eta aurrekusi dute 2031n 68.000 izango direla. Horietatik guztietatik, 25.800 mendekotasuna duten adinekoak izango dira bizi-itxaropena handitzen ari delako. Datuok kontuan hartuta, Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, beharrezkotzat jo dute adineko pertsonen beren etxeetan kalitatezko arreta emateko aukera ematen duten zerbitzuak sustatzea eta indartzea, han ahalik eta denbora luzeagoan jarrai dezaten.

## Bizikidetzari buruzko hiru jardunaldi apirilean

*Bizikidetzaren* izenburu pean hainbat mahai inguru antolatu ditu Udalak apirilera. Hiru ekitaldi egingo dituzte Musika Eskolako auditoriumean, denak 19:00etan. Apirilaren 10ean gatazkak emakumeengan dituen ondorioak izango dituzte hizpide Maria Gonzalez Gorosarik eta Bertha Gaztelumendik *Emakumeak bakearen eraikuntza* mahainguruan. Paul Rios eta Jon Mirena Landa izango dira apirilaren 17ko hizlariak. *Bizikidetzaren alde lanean: gaur egungo erronkak* izenburupean. *Nola landu biktimen aitortza* da Laura Pego eta Gema Varonaren gaia, eta memoria eta erreparazioan aurrera nola egin azalduko dute apirilaren 24an.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

**FUB** Fernando Urizar Barandiaran  
R.P.S.: 32/17  
Medikuntza dotore  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitikoak  
Psikosomatika  
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)  
Bailein kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)  
furizar1@yahoo.com  
615 715 404

**ECO EIBAR 4D**  
imagen prenatal  
R.P.S. 44340878y  
688 800 800  
Isasi kalea, 17 - EIBAR  
4D ekografieta  
espezialistak

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
Terbio Etebarria, 22  
Eibar  
Tel. 943 106 020  
Mug. 677 551 830

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192

RPS 271/12  
**ainhoa**  
fisioterapia  
Jausoro plaza, 6 beheak  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

**aldaz**  
hortz klinikak  
RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**fisio&mas**  
Fisioterapia aurreratu eta  
Kirol Berregokitzea  
Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 933 628  
www.fisio-mas.com  
RPS 122/18

federópticos  
**ikus**  
RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

**leku edero**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Erparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Urazandiko pasealekua:** "Urazandi auzoan gune berde bat jarri zuten, baina gerora autoentzako aparkaleku bihurtu zuten. Gainera, badira urte batzuk oinezkoentzako gelditu zen tarte apurrak paseatzeko ez duela balio. Izan ere, bat baino gehiago trabatu dira lurreko lauzetan eta min hartu, ere bai, pare bat zentimetro irteten direlako". Udaleko Hirigintza Sailatik jakinarazi dute pista hori konpontzeko asmoa dutela, baina hori egin aurretik urak nora bideratu ikusten ari direla dena batera egiteko, eta besteak beste, ura eskaileretatik joatea saihesteko.



**Kaleak, labainak:** "Elgoibarko toki askotan espaloiak oso gastatuta daude, eta euria egiten duenean irrist egiteko arrisku handia izaten da. Nik neuk, esaterako, laban egin izan dut Urazandin, Ermuaranbiden, autopista azpian, Pedro Muguruzan... Arrisku horiek saihesteko konponketaren bat beharrezkoa da". Udaleko Hirigintza Sailaren arabera, espaloietan poroak koipez betetzen dira, baina gehienetan erdi aterpean dauden guneetan pasatzen da. "Espaloiak garbitzen dira, noizbehinka tratatu ere bai eta azken denboraldian desugertzeko makina ere pasatzen dugu herriko gune labainkorenentatik. Inork espaloi zehatzen bati buruz zerbait esateko badauka etor dadila guregana".

**Zaborrak kexarako arrazoi:** Herritar bat baino gehiago etorri da BARRENEko bulegora zaborren inguruko kexak azaltzera. Zabor-biltze sistema berria ipini dutenetik hainbat gunetan poltsak pilatzen direla dio batek baino gehiagok (anbulategi inguruan, esaterako) eta Udaletik esan arren jasotzen dituztela, oraindik ere kexan ari dira elgoibartarrak. Herriko gune batzuetan edukiontzi marroiek ez dutela funtzionatu ere jakinarazi digute, baina beharbada martxa hartu artekoa izan daitekeela. Bestalde, txakur jabe batek esan digu kaleko zabor ontzi txikiak kentzen ari direla eta gero eta gutxiago egonik ez dela jakiten nora bota txakur kakak. Gainera, kalea kakaz beteta egoten dela esaten du jende askok, beraz, jabe honek eskatu du hori ez gertatzeko, zabor ontzi bereziak jartzeko txakur kakentzat.



**Arrapala Urazandin:** "Eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko Udalari eta bereziki losu Arraiz hirigintza zinetzari gure arazoa konpontzeko azaldu duen interesarengatik. Izan ere, Urazandi kaleko 8. zenbakirako irisgarritasun arazoak konpontzeko, arrapala bat eraiki dute berriki eta guri etxerako bidea erraztu digutenez, erosoagoa zaigu iristea. Eskerrak asko".

**Sigmako zabor ontziak:** "Auzoan zabor ontziak leku batetik bestera eraman zituztelako kexatu ginen Sigma auzoko bizi-lagunok. Orain, berriz, lehengo tokira aldatu dituzte, frontoiaren sarreratik frontoiaren azpiko aldera. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiogu hori egin duenari guretzat erosoagoa eta txukunagoa delako".



## ► SONIA ARCHELI

BADAIOTZ SOKATIRA TALDEKO TIRATZAILEA

Duela urtebete inguru hasi zen sokatiran Sonia Archeli (Eibar, 1975), eta Munduko Txapelketan lehiatu berri da Txinan, Arabako Badaiotz taldearekin. Aitortu du ez dutela euren onena ematerik izan han, baina hala ere, hiru dominarekin itzuli da Mendarora, pozik. “Esperientzia izugarria izan da”. Kirol ezberdinak probatutakoa da, baina sokak erabat lotu duela dio. “Taldea hau izugarria da”. Nesken taldea da Badaiotz, eta Euskal Herriko txapelkunak dira 550 eta 500 kiloko kategorietan eta 4x4koan; munduko txapelketetan urrezko sei domina irabazitakoak ere badira.

- AINARA ARGOITIA -

“Txinatarrek dituzten  
baliabideen  
hamarretik bat izan  
arren, gai izan gara  
lehia estuan aritzeko”

### ◆ Noiz eta zerk eraman zintuen sokatirara?

Lankide baten bitartez gerturatu nintzen. Sokatira zer zen banekien aurrez, jakina, baina lankide horren bidez jakin nuen, esate baterako, Munduko Txapelketak ere bazirela, jokatu zitekeela lur gainean nahiz goma gainean, eta kategoria ezberdinak zeudela, talde bakoitzeko partaideen pisuen batura kontuan hartuta. Berak animatu ninduen probatzera ere. Hiru neska berri hasiko zirela esan zidan, eta aukera ona nuela probatzeko, talde eginetan sartzea askoz delako zailagoa. Eta halaxe joan nintzen, probatu nuen, eta gaur, neu naiz lau talde hartatik jarraitzen duen bakarra. Lehenengo saio hura negargarria izan zen. Bizitza osoa neraman kirola egiten, indarra banuen, eta ez nintzen gai izan minutu erdiz sokari katigatuta mantentzeko. Sokatira oso kirol tekniko da, eta adituek esaten dute gutxienez hiru bat urtez entrenatu behar dela soka gerrira ondo lotzen ikasteko. Askok uste dute besoekin egiten dela lan sokatiran eta besoetan behar dela indarra, baina ez, gerriarekin eta hankekin egiten da hemen indarra. Eskuak sokari eusteko baino ez dira berez. Gure taldean badira 52 kilo eskas direnak, baina ni baino gehiago direnak.

### ◆ Hasiera zaila izan zenuen beraz, baina gaur erabat harapatuta zaitu sokatirak. Zerk eragin du aldaketa hori?

Taldekideen arteko giroak. Izugarria da. Sokari lotuta gau-



denean, tentsioa izaten dugu, eta zer esanik ez munduko txapelketa baterako prestatzen ari garenean, baina soka askatzen dugunean, giroa sekulakoa da. Familia bat gara. Lau ez beste taldekide guztiok ama ere bagara eta gure seme-alabak ere sarri etortzen dira entrenamenduetara, eta bazkariak-eta ere egiten ditugu familiok elkarrekin, azkenean gure senideenak ere badirelako gure garaipenak, guk besteko sakrifizioa egiten dutelako gu honetan jardun gaitezen. Gizarte laguntzailea naiz ni lanbidez eta Gipuzkoako Foru Aldundiarentzako egiten dut lan, Harrera familia profesionalen alorrean. Lanak aukera ematen dit lan-ordutegia neuk moldatzeko, baina hala ere, bikotekidearen eta gurasoen laguntzarik gabe ezingo nioke nik erritmo honi eutsi.

### ◆ Gogoan duzu txapelketa batera aurkeztu zinen aurreneko eguna?

Bai, aurreneko eguna da, Zazpi Herrialdeetako herri-kirol txapelketan. Aurreneko eguna, gizonetako bakarrik lehiatu dira hor, baina Araban gurea beste sokatira talderik ez dagoenez, Arabako Federazioak baimena eskatu zion Euskal Herriko herri-kirol federazioari geuk parte hartzeko Araba ordezkatzeko. Guri, jakina, oso interesgarria iruditu zitzaigun. Batetik, irailean bertan lehiatzen hasi gintezkeelako, beti ere jakinda gizonen kontra ezer gutxi geneukala egiteko, pisuan daukagun aldeetatik bakarrik askorik tira egin beharrik gabe irabazten digutelako [tiratzaile bat gutxiagorekin aritu ziren gainerako taldeak, baina hala ere, pisuan, ehun kilo inguru goitik ziren guztiak]. Eta bestetik, iruditu zitzaigulako aukera ederra zela herri-kirolen munduan emakumea bistartzeko. Esperientzia izugarria izan zen, baina nik saihesten bat apurten nuen eta ia bi hilabete egin behar izan nituen gero gelditu. Eta horrek nire prestaketa atzeratu du, jakina. Gogor entrenatu behar izan dut taldekideen “pare” jartzeko. Eta komatxo artean diot, ez na-

goelako inorekin konparatzeko moduan, entrenatzen denbora gutxi daraman taldekideak ere sei bat urte badaramatzalako.

#### ◆ Zenbat orduz entrenatzen zara?

Denboraldi barruan, astean hiru lan-saio izaten ditugu, bina ordukoak. Gasteizen entrenatzen gara, Abetxukoko frontoi estali bateko kontraktantxan. Tristeia da, baina bai, Munduko Txapelketa Euskal Herria ordezkatzera doan gure talde honek frontoi bateko kontraktantxa dauka hartuta entrenamenduetarako. Baina gure entrenamenduak ez dira lan-saioetara mugatzen. Fisikoa geure kasa entrenatzen dugu. Nik crosfit egiten dut horretarako.

#### ◆ Hasi eta urtebetera, Txinaraino eramán zaitu sokatirak.

Entrenatzaileak [Jon Lapazarán, Euskal Herriko txapelduna ingurua altxatzen] zeinek nahi eta ahal zuen galdetu zigun, eta zorionez, oraingoan denok ahal izan dugu. Sokatirako taldeak zortzi lagunekoa izaten dira, eta gu hamabi joan gara Txinara. Txapelketako lehenengo bi egunetan klubeka lehiatu gara, eta hurrengo bietan, Euskal Herria ordezkatzeko. Han bertan zehaztu dituen entrenatzaileak taldeak, gutako bakoitzaren pisua eta sasoi puntua kontuan hartuta. Taldekide guztiok agindutako pisuaren barruan sartu behar izan dugu lehiatzeko, eta han ibili da Jon, kabalak egiten, tiraldi bakoitzeko aldaketa bakarra egin daitekeelako.

#### ◆ Hiru dominarekin itzuli zarete, baina arantzatzxoarekin

Brontzezko bi domina eta zilarrezko bat lortu ditugu, baina bai, ez dugu gure onena ematerik izan. Zilarra taldekakoan lortu genuen, 500 kiloko kategorian. Egun horretan hiru euskal taldek osatu genuen podiuma [Gaztedi, Badaiotz eta Ibarra]. Klubeka lehiatu ginen bi egun horietan, baina, nahi eta ezin ibili ginen, urduri oso. Euskadiko txapeldunak izanda, gu ginen irabazteko faborito nagusiak, baina urduri jardun ginen, bereziki lehenengo egunean. Bigarren egunean beste indar batekin jardun ginen, eta guretzat urrearen balorea duen zilarrezko domina eskuratu genuen. Euskadiko selekzioarekin brontzezko bi domina eskuratu genituen, finaleran Txina eta Taiwan garaituta. Eta izugarritzko lorpena izan da, kontuan hartuta Txina eta Taiwangoak sokatira

talde profesionalak direla. Egunean sei bat orduz entrenatzen dira eta gu baino mila aldiz baliabide gehiago dituzte. Diziplina handikoak dira, eta izugarria da haiek tiraka ikustea. Milimetroaren barruan ematen dute pausoa ere.

#### ◆ Antolakuntzaz zer duzu esateko?

Ikusgarria izan dela. Inaugurazio-ekitaldian, desfilea egin genuen, Joko Olinpikoetan moduan, eta operako abeslarien kantaldia eta beste hainbat ikuskizun ere izan ziren. Su artifizialak bakarrik falta izan ziren estadio barruan. Bi gauza egin zaizkit bereziki deigarri: batetik, herrialde horietako taldeen eta gureen artean dagoen aldea, eta bestetik, Euskal Herriak duen potentzialtasuna, gai izan garelako haiek dituzten baliabideen hamarretik bat izan arren haiekin lehia estuan aritzeko.

#### ◆ Zer du sokatirak probatu dituzun beste kirolek ez dutena?

Kirol askotan ibili naiz, gehienak banakakoak, baina sokatira ezberdina da. Sokak lotzen gaitu lehenengo tiratzailetik azkenekora guztiak eta horrek harreman berezia sortzen du taldekideen artean. Frustrazioa eta konstantzia lantzeko oso lagungarria ari zait izaten, adibidez. Ezinaren ezinez eta minaren minez, negar ere egin dut nik sokari helduta, baina sokak gerrialdea erre arren, jarraitu egin dut, talde-giroa apartekoa delako. Autokontrola lantzeko ere balio dit kirol honek. Hemen, aurrekoek ez dituzte atzekoak ikusten eta entrenatzaileari adi egon behar dugu, mugimendu txar batekin min egin diezaiotzekulako lagunari. Adi egon behar da, era berean, aurkariak ze asmo duen igarriko bada. Asko ari naiz ikasten. Bi ideia dira bereziki gustatzen zaizkidanak: gure taldean debekatuta dago 'ezin du' esatea. Esan zenezake 'nekatuta nago', baina 'ezin du' ez, denok ahal dugulako gehiago, eta bestea da, Badaiotzek galtzen duenean errua ez dela sekula bakarrarena izaten. Galtzen badugu denok gaizki egin dugulako da, bakarrak gaizki eginda ez dagoelako galtzerik, taldean beste zazpi gaudelako. Kirol ederra da, eta pena bakarra daukat: Eskola Kirolean ez dela eskaintzen. Ez dakit zenbat gazte animatuko liratekeen, baina eskaini ezean, inor ez.



Badaiotz taldekoak pozarren, Txinan, domina paparrean dutela. Ezkerretik bigarrena da Sonia Archeli mendararra.



Kutxa Fototeka - Marin

Eskumatik hasita bigarrena, Maria Agirregomezkorta, eta laugarrena, Salome Agirregomezkorta. Aizbizkar behkoa baserrikoak biak.

# Erraketekin pilota mundura zabaldu zuten emakumeak

**Frontoietan, larruzko pilotekin eta erraketa bereziekin jokatzeko zuten emakumeak ziren erraketistak. Espainian, eta zenbait adituren esanetan, munduan, lehen emakume kirolari profesionalak izan ziren. XX. mendeko 20ko hamarkadatik 70ekora aritu ziren, eta haien jokamoldeak eta izenek garai batean izandako sona galdu zuten, elkarrekin bat hasi da orain orduko erraketisten berri jasotzen. Elgoibarren ere izan zen erraketistarik, eta onak gainera.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Erraketisten argazkiei hautsa kendu eta ikusgai ipini dituzte Raketistak lehen eta Orain elkartekoek Olaizaga kiroldegiko tabernan eta han izango dira astelehenera bitartean. Askok, ordea, ez daki erraketistak zein ziren ere. Hauen argazkiak ez ezik beren historia ere jasotzen ari dira, baita jokamoldea berreskuratzeko ahaleginetan ere. Elgoibarren ere izan ziren erraketistak Aizbizkar behkoa baserriko Maria eta Salome Agirregomezkorta, Arane baserriko Maria eta Juanita Arrillaga, Sabiñe Juaristi, Artazoko Angela Juaristi eta Berdunگو Felisa Muguza. Hauetako zenbaiten senideek kontatu dizkigute beren ahotik jasotako kontuak.

1917an hasi ziren erraketistak jokoan eta 1943ko boomaren ostean, 1980ra arte iraun zuen pixkanaka beherantz eginez. Arrakastaren adierazgarri izan zen, esaterako, 1943an 740 emakume profesionalak izan zutela lizentzia eta urte hartan gizonetako baino gehiago izan zirela.

Profesional izan ziren hainbat emakume elgoibartar ere eta Euskal Herriko, Espainiako zein Ameriketako pilotalekuan ibili ziren. Aizbizkar behkoa baserriko Maria eta Salome Agirregomez-

omezkorta izan ziren horietako bi. Bere iloba Pedro Andonegik jakinarazi digunez, Maria, Arrate bailarako baserri batera joan zen neska eta inguruko beste baserri batzuetako neska pilotan hasi zirenean nagusiak animatuta hasi zen bera ere. Elgoibarko Kamiñerokuaneko frontoian ikasi zuten pilotan, Juanito Etxanizekin, eta 1938 inguruan bere eta gerora hasitako ahizparen bila etorri zen Donostiako enpresari bat Elgoibarko erraketista Felisa Muguza Berdunekin eta Groseko frontoira eraman zituen. Aizbizkar behko ahizpak Bartzelonara joan ziren gero, eta ezkondu artean han jokatu zuten. Orraindi baserriko Maria Txurrukaren iloba Arantza Bollarrekin ez daki nola hasi zen izeba, baina uste du hura ere Kamiñerokuan entrenatzen zela eta han ekin ziola Mexikoraino eraman zuten ibilbideari.

## IKUSKIZUNAK

Jokalari gehienak Euskal Herrikoak izan arren, hemen ez zuten hainbesteko arrakastarik, gizonezkoen esku pilotak itzal egiten ziolako. Baina Espainiako eta Hego Amerikako zenbait frontoi goraino betetzen zituzten lehia eta joko handiko partida



profesionalek. Partidak ia egunero jokatzen zitzuten, 30 tantora. Binakako partida batekin hasten ziren jaialdiak eta kiniela izeneko lehia jokatzen zuten gero, banaka, elkarren aurka, zazpi pilotari hasi eta kanporaketetan batek irabazi arte. "Apustuak egiten ziren kinieletan, baina nahiko aspergaria zen frontoi handietan bi erraketistak tantu gutxira jokatzea. Partidak jokatzea gehiago gustatzen zitzaien", dio Arantza Bollarrek. Gizonezkoak joaten ziren erraketisten partidak ikustera, batik bat militarrek eta politikariak, horiek zutelako apustuak egiteko dirua; baita boxeolariak, abokatuak, toterroak eta aktoreak ere.

Soldatarekin eta kinieletatik irabazitako diruarekin bazuten bizitzeko aukera. Diruaren zati bat familiakoei bidaltzen zieten eta arropak eta erraketak erosteko ere baliatzen zuten. Arantza Bollarrek esan digu bere izeba 36ko Gerra pasatu eta handik urte gutxira egon zela Bartzelonan, Madrilan, Castellonen eta Tenerifen eta partida amaitzen zutenean jende famatua ezagutzen zutenez batzutan afaltzera gonbidatzen zituztela. "Mexikon soldata hobeak zeukaten eta bizimodu merkeagoa, beraz, gustura bizi ziren". Oroitzapen oso onak zituzten. "Beraien ardurak bakarra zen kontratua berrituko zieten ala ez. Bisatua berritzeko ere, Mexikotik irten Kubara joan eta bueltatu egin behar izaten ziren". Beren garaiko *hippieak* zirela esaten omen zuen, abenturara atera baitziren Mexikora erraketista kontratuarekin. Baina han familia bat osatu zuten guztiek. "Gure izebak, gainera, denak inguratzeko dohaia zuen. Bere etxea denek elkartoki izaten zen: karta jokoan, erretzen, eta berriketan aritzen ziren. Lanera joan ziren, baina ez zanpatuta bizitzera; ahalik ondoen bizitzera baizik, eta bidaia asko egin zituzten".

Partidak iluntzean berandu bukatzen zituzten, eta emakumeak jokatzerako oso gazte joaten zirenez, ez zegoen ondo ikusita haiek gau giroan ibiltzea. Erraketista batzuek beren lana goiz uzteko arazoietako bat hori izan zela uste dute adituek. Pilotalekuetako gizon girotik etxera erretiratzera derrigortzen zituzten neska gaz-



*Eskumako lehenengoa Juanita Arrillaga, eta bere ondoan, Maria Txurruka.*

teak hainbat gurasok. "Topikoek diote ez zegoela ondo ikusita emakumeak kirolean aritzea, baina nire izebak ondo hartzen zituzten hemen Bartzelonatik etortzen zirenean eta beraiek ere ondo hartzen zituzten Elgoibartik ezkonbidaian Bartzelonara joaten zirenak. Bestalde, baserritarrek kategoria apalagokoak zirela uste zuen batek baino gehiagok, baina beraiek ez zuten inolako konplexurik izan. Oso ondo moldatu ziren hango gizartera. Hala ere, ez zuten Elgoibar sekula ahaztu, eta bizi guztian euskaraz egin zuten beraien artean, eta senarrekin, katalaneraz".

Mexikon gustura bizi bazen ere, sarri egiten zuen Elgoibarrera bisita Maria Txurrukak. Bere bilobak esan digu irudi berezia ematen zuela hemen: "Emakume bat erretzen eta autoa gidatzen ikustea ez zen ohikoa eta gu pribilegiatuak ginen haren ondoan, hondartzara autoan joaten ginelako berarekin".

Erretzaile amorratua zen, bai, eta kantxara sartu aurretik ematen zion zigarroari azken zupada, hala ere erretiratu zenean erretzeari utzi zion. Zigarroek ez zioten jokorako kalte egin, eta kirolari askok ez bezala ez zuen inoiz hezurretako arazorik izan. "Ez zuen sekula bere burua lurrera bota pilota bat jasotzeko, edo hala esaten zigun behintzat", dio ilobak.

Gaizki ikusia zen batzuentzat, baina garai hartan bazuen sona kirol honek, emakumeek jokatzen arren. Prentsan ere egiten zioten tartea. Maria Txurrukari, esaterako, *urrezko sakearen erregina* deitu zioten eta erraketista gehiago ere elkarrizketatu zituzten. Bestalde, hainbat erraketisten kromoak ere atera zituzten.

Pedro Andonegik izeben jokorako indarra azpimarratu du, eta kontatu digu jokatzeari utzi arren, 70eko hamarkadan urbanizazio batean etxe bat zutela eta han teniseari aritzen ziren gazteei irabazita torneoko txapelkun izan zela.

Indarra galdu zuena erraketisten sona izan zen eta historia berreskuratzen ari diren honetan bizirik dauden erraketistek nostalgiaz gogoratu dituzte garai hartako jokoak. Ea orduan jokalaririk zirenek baduten erraketistak pilotalekuan berriz ikusteko aukera, berreskuratze ahaleginetan dabilza-eta.



*Maria Txurruka goian, eskumatik bigarrena.*

## Elgoibarko Udalak 197.000 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Izarra elkarteari

Elgoibarko Udalak 197.000 euroko diru-laguntza emango dio aurten Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneari, 2018an euskararen erabilera sustatzeko egingo dituen ekintzak eta haurrentzako aisia hezitzaileko egitasmoa finantzatzeko. Joan zen ostiralean sinatu zuten lankidetzahitzarmena Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneko presidente Iñaki Kondek. Ekitaldian, Maialen Gurrutxaga Euskara eta Gazteria sailtako zinegotziak, Kristina Zuatzubizkar Euskara teknikariak, Mikel Etxaniz Gazteria saileko teknikariak eta Elgoibarko Izarrako hiru ordezkariak ere parte hartu zuten: Imanol Larrañaga (dinamizatzailea) eta Naiara Martin (aisialdia) eta Ainara Argoitia (BARREN).

Diru-laguntza hori bi sailetatik bideratuko da. Udalaren Euskara Sailetik 124.000 euro jasoko ditu Elgoibarko Izarrak, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sailetik, berriz, 73.000 euro. Hitzarmena sinatu ostean, Elgoibarko Izarrak eskerrak eman zizkion Udalari emandako bultzadagatik. Elgoibarko Izarratik az-



Iñaki Konde, Ane Beitia eta Maialen Gurrutxaga.

pimarratu zuten administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana ezinbestekoa dela, haurrentzako aisia hezitzaileko eskaintza osatu eta Elgoibarren euskara eta euskal kultura sustatzeko.

### 'Gure zuhaitzak landatzen' egitasmokoek aurkeztu dituzte euren proiektuak

Hogei lagunek parte hartu dute Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak antolatu duen *Gure zuhaitzak landatzen* egitasmoan, eta joan zen eguenean eman zioten azkena, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Parte hartzaileetako batzuk euren proiektuak aurkeztu zituzten eta ondoren elkarrekin afaldu zuten taldekideek. Ibon Serrano izan dute gidari egitasmoan parte hartu dutenek eta hark eman dizkie genealogi kontuetan abiatzeko oinarriko azalpenak. Serranok azpimarratu du proiektu askotarikoak landu ditzutela eta bitxikeria bat baino gehiago azaldu direla lan horietan. Izan da, adibidez, Borboiko Kristinarekin lotura genealogikoa duela topatu duenik ere taldean.



### Nerea eta Maddi Arriola ahizpak saridun, Euskadiko Musikari Gazteen lehiaketan

Mendaroko Ameikutz musika eskolako bi ikasle saritu dituzte Euskadiko Musikari Gazteen Lehiaketan: Nerea eta Maddi Arriola ahizpak. Harizko instrumentuen A mailan parte hartu zuen Nerea biolin joleak, 16 eta 20 urte bitartekoetan, eta lehen saria eskuratu zuen. Maddi, Nerearen ahizpa gaztea, berriz, B mailan lehiatu zen, eta bigarren saria eskuratu zuen, ex-aequo, Issey Martinez irundarrarekin batera.

Era berean, Winter International Arts Festival musika jaialdi entzutetsuan ere parte hartu zuen otsailean Nereak. [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean daukazue ikusgai Errusian grabatutako bideoa.



## Hasier Etxeberria idazle euskaltzalearen pentsamendua bistaratzeko lehen ahalegina izan da Elgoibarren 'Biba Hasier!' ekimena

Hasierren urrats kide izan gineno haren azken urratsen oinatzak erakustea dagokigu. Oinatzak behintzat erakutsi behar dizkiegu ondorengoei oinatz horietatik kontu atera dezaten zer nolakoak izan ziren Hasierrek egindako urratsak". Joxerra Gartzia idazle, kazetari eta unibertsitate irakasle izandakoaren berbak dira, asteazkenean Elgoibarko Izarrak eskatuta *Biba Hasier* ekitaldirako prestatu zuen solasa amaitzeko aukeraturakoak. Horixe zuen helburua, hain justu, ekitaldiak berak ere: Hasier Etxeberriaren pentsamendua eta hark euskaratik, euskaraz eta euskararen alde egindako guztia bistaratzeko. Mikel Hernandez Abaitua idazlearen hitzekin hasi zen ekitaldia, eta ekitaldian Etxeberriaren testuak irakurri zituzten Jon Eugi, Iñigo Otaño, Jasone Osoro eta Uxue Alberdi herriko literaturzaleek. Iban Urizarrek eta Aitor Novak jantzi zuten ekitaldia zuzeneko musikarekin, Joxerra Gartzia eta Urko Uranga Zuzeuko gerentearen arteko solasaldiak osatu zuen ekitaldiaren muina [Oier Arantzabal kazetariaren partez aritu zen Uranga] eta Zuhaitz Gurrutxagak ekarri zuen azken umore-kolpea. Bukieran, Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidenteak aurreratu zuen eguaztenekoa hasiera baino ez zela izan, Etxeberriaren izana zabaltzen jarraitzeko nahia agertu dutelako antolatzaileek.

Etxeberriaren obran sakondu nahi duenak, baina, badu oraindik horretarako aukera. Hilaren 28a arte zabalik dagoelako *Begia zuloatik* erakusketa, Elgoibarko Kultur Etxean. Aitor Etxeberria, Edu Arrillaga eta Joxe Ramon Elortzaren lanak daude ikusgai, Hasier Etxeberriaren testuek lagunduta.



'Begia zuloatik' erakusketaren inaugurazioko argazkia.



Urko Uranga eta Joxerra Gartzia 'Biba Hasier' ekitaldian.

## Debabarrenako 90 ikaslek hartu dute parte Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Idatzien lehiaketako bosgarren saioan, eta Elgoibar Ikastolako bost ikasle saritu dituzte

Elgoibar Ikastolan jokatu zuten martxoaren 15ean Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Idatzien Lehiaketako bosgarren saioa, eta guztira, Debabarrenako 90 neska-mutil lehiatu ziren. Hainbat gelatan banatu zituzten ikasleak, bertakoak eta eskualdeko beste ikasleak, beste etorritakoak, eta lehiaketarako bertsoak idatzi zituzten. Idatzizko proba amaitu ondoren, Unai Mendizabal eta Unai Gaztelumendi bertsolariak eskainitako bertso-saio didaktikoa entzun ahal izan zuten denek, Ikastolako areto nagusian. Itziariko ikasleak ere eskaini zuten aurrez prestatuta ekarri zuten emanaldia, eta ekitaldiari sari-banaketaekin eman zioten azkena.

Maila bakoitzeko bi saridun izendatu zituzten. Hauetxek: LH3-4 mailetan: Maialen Arriola Arakistain eta Marina Zubiaurre Ortueta (Elgoibar Ikastolako ikasleak biak). LH5-6 mailetan: Eneko Etxaniz Irureta eta Leire Eguren Arregi (Elgoibar Ikastola-



koak biak). DB1 eta DB2 mailetan: Jone Aranberri Mendata (Deba) eta Maddi Arriola (Elgoibar Ikastola), eta DBH3-4 eta Batxilergoan: Peru Alberdi San Martin eta Eneko Osoro Agirregabiria (Elgoibar Ikastolako ikasleak biak).



## Tecnifuelle eta Deca eskubaloi taldeek Euskadiko Txapelketako Lauko Finalak jokatuko dituzte asteburuan

Sanloko jubenilen bi taldek, Tecnifuellek eta Decak, Euskadiko Lauko Finalak jokatzeke sailkatu dira. Nesken taldea, Tecnifuelle, Zarautzen jokatuko den Lauko Finalean lehiatuko da, barixakutik domekara bitartean. Pulpo Zumaiako taldea, Donostiako Bera Bera eta Zarautzko Aiala taldeen aurka jokatuko dute Igor Lizarraldekin entrenatutako jokalariek. Mutilen taldeak, Deca Elgoibarrek, Urdulizen jokatuko den Lauko Finalean hartuko du parte. Elgoibartarrek Bidasoa Irun, Zarautz Z.K.E eta B.M. Urduliz taldeen aurka jokatuko dute. Lauko Finalak lehen hiru sailkatuak Espainiako Eskubaloi Txapelketa jokatzeke sailkatuko dira.

### Maila igoera ospatzeko festa

Gipuzkoako Txapelketako Lehen Mailara igotzea lortu du Pizzeria Salentok, Sanloko senior gizonezkoen bigarren taldeak. Mailaz igo izana ospatzeko festa antolatu du taldearen babeslea den Salento pizzeriak. Zapatu honetan, martxoaren 24an, izango da festa jatetxean, 19:00etatik aurrera. Besteak beste Djak eta photocalla izango ditu.

## Artxibatu egin dute Idiazabalen eta Elgoibarren arteko partidako epailearen aurkako salaketa

Gipuzkoako Futbol Federazioaren Lehiaketa Batzordearen arabera, ez dago "zantzu nahirik" Manuel Sarrion epailea zigortzeko, eta artxibatu egin dute C.D. Elgoibarrek eta Idiazabalek eginiko salaketa. Idiazabalek eta Haundik joan zen otsailaren 17an jokatutako partidaren ostean bi taldeek salatu zuten epaileak ez ziela euskaraz berba egiten laga jokalariei eta entrenatzaileei, eta hala hitz egiten bazuten kanporatu egingo zituela mehatxu egin ziela. Lehiaketa Batzordeak aste hauetan egin du ikerketa, eta salaketa artxibatzea erabaki du epailearen akta, bi aldean arrazoibideak eta lekukoaren adierazpenak aztertu eta gero. Gipuzkoako Futbol Federazioko Epaileen Batzorde Teknikoko presidente Emilio Navasen babesa izan du Sarrion epaileak, eta ikerketa egin bitartean ere epaile lanetan jarraitu du Sarrionek. Aste honetan jakinarazi du, baina, badoala Gipuzkoatik, lan kontuengatik. Alabaina, bere aurkako salaketan esaten direnak gezurra direla berretsi du.



Manuel Sarrion futbol epailea.  
Arg.: Michelena



## Iñaki Konde 2017ko Euskadiko duatletarik onena, beteranoetan

2017ko triatletarik eta duatletarik onenak saritu zituen Euskadiko Triatloi Federazioak, joan den otsailan Irunen egin zuen jaialdian, eta Iñaki Konde (Elgoibar, 1951) izan da onena duatloietan eta hirugarrena triatloietan, 60 eta 70 urtekoen artean. Duatloi zirkuituko lau proba irabazi zituen Kondek iaz (Sopelana, Mungia, Basauri, Oñati, Ermua eta Durango) eta triatloi zirkuituko bat, Gortzen. Kondek distantzia luzeko (4-1 30-30) Europako Triatloi Txapelketan parte hartzeke asmoa du, udan, Ibizan, eta ironman proba bat egitea ere badago bere helburuen artean.



## Kepa Arrizabalagak Udaberri Saria irabazi du Xabi Garalderekin bikotea osatuta



**K**epa Arrizabalaga elgoibartarrak eta Xabi Garalde berritxuarrak osatutako bikoteak irabazi du Udaberri Saria, gomazko paleta modalitatean. Mutrikuko Danok Bat taldea ordezkatu dute Lehen Mailan, eta joan den barixakuan, martxoaren 16an, jokatu zuten finala Mutrikuko Miruaitz frontoian. Zarauzko pilota taldeko Aizpuru eta Da-guerre izan zituzten aurkari eta 25-17 irabazi zuten finala Arrizabalagak eta Garaldek. Esperientzia handiagoko bikoteen aurka jokatu duten arren, txapelketa oso ona osatu dute elgoibartarrak eta berritxuarrak, eta pastelari ginda jarri zioten finala irabazita.

### Bi ibilbide izango ditu

### Kilimon Trail mendiko lasterketak, motza eta luzea



Zabalik dago Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketarako izenematea. Apirilaren 16an izango da aurtengoa, estreinakoz zapatuan, domekan jokatu baitira orain arteko zazpi lasterketak. Bada beste berrikuntza bat ere, bi ibilbide izango dituelako probak: 23 kilometroko ohiko ibilbidea bata, eta, 11 kilometroko ibilbide motzagoa bestea, aurrenekoz. *Kirolprobak.com* webgunean eman daiteke izena baterako zein besterako. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak (MTT) antolatzen du Kilimon Trail mendiko lasterketa, Lizarpe Mendi Klubaren babesarekin. Iaz, Maite Maiora (Mendaro, 1982) eta Julen Larruzea (Larrabetzu, 1982) gailendu ziren zazpigarren Kilimon Trail mendi lasterketan, eta errekorrak ondu zituzten gainera.

## Jubenilen txirrindulari lasterketa jokatuko dute apirilaren 8an



Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak antolatuta, jubenil mailako txirrindularientzako 38. Elgoibarko Hiria Saria txirrindulari lasterketa jokatuko dute apirilaren 8an. Kalegoen plazatik irtengo dira txirrindulariak eta 86 kilometroko ibilbidea osatu eta gero, Mintxetan egongo den helmugara ailegatu beharko dute.

## Martxan da Gipuzkoako hiru txirilo bola-joku txapelketa



Joan den martxoaren 17an hasi zen Gipuzkoako hiru txirilo bola joko txapelketaren 49. ekitaldia Sorraluzen, Ezoziko bola tokian. Bederatzi jardunaldi izango ditu txapelketak eta horietako bi Elgoibarko bola tokietan jokatu dira. Lehena Idorben, apirilaren 21ean, eta Aiastiako bola tokian bigarrena, maiatzaren 12an. Maiatzaren 26an amaituko da txapelketa, Azkootiko Floreagan jokatu den jardunaldiarekin. Gero, ekainaren 2an, Lehendakari Saria jokatu dute lehen sailkatuek Elgetan. Bazkari baten bueltan batuko dira bolariak, eta ohi duten moduan, sariak banatzeaz gainera, jokalariren bat omenduko dute. Azken hiru urteetan Jabier Osoro elgoibartarrak irabazi du Lehendakari Saria.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest barne-langile moduan.

☎ 631 406 177

Umeak edo nagusiak zainduko nituzke edota garbiketa lanak egin. Orduka, nahiz asteburuetan. Ospitaletan gauak zaintzan pasatzeko ere prest nago.

☎ 632 449 742

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Orduka. Asteburuetan barne.

☎ 629 872 270

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan. Berehala lanean has-teko moduan. Etxeko langile nahiz or-duka. Prestakuntza eta ziurtagiria daukat. ☎ 638 857 100

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan. Orduka.

☎ 651 473 142

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan.

☎ 943 74 88 99 / 685 724 861

Umeak eta adinekoak zaintzeko eta gar-biketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 603 694 244

Atariak eta etxeak garbitzen eta adineko pertsonak zaintzen lan egiteko prest.

☎ 631 790 555

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Egun osoz, orduka eta baita barnelan-gile ere. ☎ 631 414 947

Adinekoak eta umeak zaintzen edo gar-biketan lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

☎ 631 376 202

Umeak zaintzeko eta etxe, elkarte edo tabernetan garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo lan jardun osoan.

☎ 675 965 130

Umeak eta nagusiak zaintzeko zein su-kalde laguntzaile aritzeko prest. Orduka.

☎ 602 047 812

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Etxeko langile moduan jarduteko prestutasuna.

☎ 688 829 738

Umeak zaintzeko eta etxe, elkarte zein tabernetan garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo lan jardun osoan.

☎ 605 598 999

Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan edota baserriko lanetan aritzeko prest. ☎ 631 272 116

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia handia daukat. ☎ 699 535 728

Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen jarduteko prest. Esperien-tzia daukat. ☎ 663 470 706

Adinekoak zaintzen edo baserriko lane-tan aritzeko prest. Etxeko langile mo-duan nahiz bestela. Berehala lanean hasteko moduan naiz.

☎ 674 579 736 / 688 735 551

Adinekoak zaintzeko lanetan aritzeko prest. Etxeko langile moduan nahiz or-duka. ☎ 626 292 587

Adinekoak zaintzeko lanetan aritzeko prest. Etxeko langile moduan nahiz or-duka. ☎ 681 013 032

Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan nahiz orduka.

☎ 691 891 709

Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan nahiz orduka.

☎ 632 748 877

Garbiketan edo zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientzia handia daukat enpre-setako harrera lanetan.

☎ 682 319 739

Edozein lanetan aritzeko prest nago. Au-rrez esperientzia daukat fruta-dendan la-nean.

☎ 631 394 345

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Titulua daukat.

☎ 636 517 025

Lan bila nabil. Garbiketa lanetan kon-tserbagintzan esperientzia daukat.

☎ 642 847 091

Lan bila nabil. Garbiketa lanetan eta en-presetako harreran esperientzia.

☎ 631 222 440

Sukalde laguntzaile eta etxez etxeko la-guntzaile bezala lan egiteko prest.

☎ 666 008 974

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest.

☎ 620 467 274

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan El-goibarren. ☎ 677 529 560

**GARAJEAK.....****Salgai**

Garaje itxia salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. Ate automatizatua dauka eta 14 metro koadroko azalera.

☎ 648 012 181

**OSPAKIZUNAK.....**

1943an jaio eta aurtun 75 urte bete-tzen dituzten elgoibartarrek edo elgoiba-rren bizi direnek, bazkaria egingo dute apirilaren 28an Sigma jatetxean. Interes-dunek 50 euro sartu beharko dituzte api-riaren 24a baino lehen Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: ES72 3035 0007 2900 711 35212. 12:30ean ospakizun erlijiosoa egingo dugu San Bartolome parrokian, gero argazkia ate-rako dugu eta 13:00etan luncha egingo dugu. 14:30ean bazkaria Sigma jatetxean izango da.

administradores

Consejo Vasco de Colegios  
de Administradores de Finanzas  
Federación Vasca Administradores  
Locales Económicos



**ROSA M<sup>a</sup>  
PINTADO**

*Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen ardu-raduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gi-puzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentzia-tua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**

**rosapf@telefonica.net**

**Nire jabeakideen komunitatean berogailu zentrala dago eta solairu arteko gune bat ere badago merkataritzarako erabiltzen dena. Hor sekula ez dute berogailurik izan hasieran eraikina horrela itxuratu zute-lako. Eraikinaren dokumentazioak dio etorkizunean zerbitzu hori jaso nahi izanez gero, eskubidea dutela horretarako eta nola ordaindu ere adierazten du. Azken bileran solairu artekoak esan zuen berogailu zen-trala jarri nahi duela. Jakin nahi nuke solairu arteko jabeak urteotan gal-dararen mantenuan sortutako gastuak zein orain dela hiru urte jarritako galdara berria ordaindu beharko dituen.**

Nire ustez, energia horniduraren instalazio berriei buruz legeak diona hartu beharko litzateke kontuan. Legearen arabera, gerora telekomunikazio edo ener-gia horniduraren sartzea eskatuz gero eta horretarako azpiegitura berriak edo aurrez jarritakoetan egindako egokitzapenak baliatu behar badira, baimena eman ahal izango zaie, beti ere dagokien kopurua ordainduz gero eta modu egokian eguneratuta legezko interesak gehituz. Legeak ez du aurrekoen mantenu eta zaintza gastuei buruzko ezer jasotzen zerbitzu hortaz baliatzen ari direnen be-harrerako baitira. Beraz, gastuok ez dute eraginik izango instalazio honen erabi-lerarekin bat egin berri duen jabearengan.

**Aholkua: Nire iritzi, solairu arteko jabeak legeak ezarritako estatutu baimena erabili ahal izango du. Baina galdara berriaren kostua ordaindu beharko du dagokion proportzioa kontutan hartuz eta azken hiru urtee-tako (jarri zutenetik) urteroko legezko interesa gehituz. Baina ez ditu aurreko urteetako mantenu eta zaintza gastuak ordaindu beharko.**



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.




Zorionak, **Intza**, lehenengo urtebetzean! Patxo handi bat familia osoaren eta batez ere ahizpa Aine-ren partetik.



Gure udaberriko larrosak bihar 6 urte. Zorionak, **June**, etxekoan partetik.



Zorionak, printzesa! Jarraitu hain neska alaia izaten. Ondo pasa eta muxu handi bat guztion partetik.



Zorionak, **Martin**, bihar 6 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Zorionak etxeko deabrutxoari! 4 urte handi! Muxu handi bat denon eta bereziki Mar-kelen eta Endikaren partetik.



Igandean 11 urte! Zorionak eta ondo pasa, **Jon**! Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



Zorionak, **Maia**, zure hamabigarrren urtebetetzean. Muxu bat familiakoan eta bereziki Gorkaren partetik.



Zorionak, amama, gaur 60 urte eder. Familia osoaren eta bereziki Naroa, Alain, Julen eta Enaien partetik.



Zorionak, **Enai**. Martxoaren 29an 2 urte. Familia osoaren, eta batez ere, Naroa, Alain eta Julenen partez.



Zorionak, **Julen**. 2 urte bete zenuen martxoaren 19an. Familia are eta bereziki Naroa, Alain eta Enaien partetik.



Zorionak, **Elsa**. Aste Santuan ospatuko dugu zure urtebetetze eguna. Muxu bat denon partetik.



Zorionak, **Koldo**! Bihar 5 urte handi. Muxu handi bat anaia Julenen eta etxekoan partetik.



Zorionak, **Nagore**. Gaur 7 urte bete dituzu. Patxo handi bat etxekoan eta bereziki Eneritzen partetik.



Zorionak, **Martin**! Urtebete! Patxo potolo bat etxekoan partetik.



**Martin**, zure lehengusinak seigarren urtebetetze on bat opa dizu. Zorionak!



Zorionak, **Danel**! 6 urte handi! Muxu handi bat familiakoan eta bereziki Estanisen partetik.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€  
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

**BARREN-zaleen jai** prestatzen hasi gara, baina zuokin batera egin nahi dugu. BARREN denona delako! BARREN denok garelako! Antolakuntza-lanetan parte hartzeko, eman izena: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) 943 744 112

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**EGUZKITAKO BETAURREKOETAN AUKERA ZABALA.**

**19€** gehiagogatik GRADUATU ITZAZU!

\* Kontsultatu baldintzak

## 23 BARIXAKUA

**09:00-19:30** Erakusketa: *Raketistak*. Olaizaga Kiroldegiko kafetegian. Martxoaren 26ra arte.

**16:30-20:30** Odol ateratzea. Elgoibarko Odol-Emaitzen Elkartearen (Anbulategi ondoan).

**18:30-20:30** Erakusketa: *Begia zuloitik*. Hasier Etxeberriaren oroimenez. Aitor Etxeberria, Edu Arrillaga eta Joxe Ramon Elortza. Erretratuak, koadroak, eskulturak eta Hasier Etxeberriaren testuak. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Astelehenetik zapatara. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Azken eguna: martxoak 28.

**19:00** *Etxean bizi* programaren aurkezpena. Musika Eskolako auditoriumean.

**19:30** Xamurtasun tailerra (ez mixtoa). Antolatzailea: Narrutsik Elgoibarko Feministak. Sutegixa gaztetxean.

**20:30** Opera emanaldia (aurrez grabatuta): *Tosca*. Elgoibarko Herriko Antzokian.

## 24 ZAPATUA

**11:00** Ingeniaritza dualeko unibertsitate eskolaren informazioa. IMHn.

**12:00** Udaberri festa. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Kalegoen Plazan.

## 25 DOMEKA

**8:30** Erramuen bedeinkazioa eta meza. Maalan.

**10:00** Erramuen bedeinkazioa eta meza. Santa Klaran.

**10:30** Erramuen bedeinkazioa eta hitzaren ospakizuna. Idotorben eta Sallobenten.

**11:30** Erramuen bedeinkazioa eta hitzaren ospakizuna. Arriagan eta Aiastian.

**10:30** Erramuen bedeinkazioa, prozesioa eta familiako meza. San Bartolome parrokian.

## 26 ASTELEHENA

**18:00-20:00** Emakumeentzako hausnarketarako saioa. *Elgoibarren emakume asko gara, anitzak eta baliagarriak, eta elkarrekin... boteretsuagoak*". Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**19:00** *Epeletan* euskal literatur tailerra. Arantza Iturberen *Koaderno zuri*. Antolatzailea: Haizea. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

**19:00** Adiskidetze ospakizuna (Euskaraz). San Bartolome parrokian.

## 27 MARTITZENA

**18:00** Ikuskizuna: *Etxean otso, kalean uso*. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Elgoibarko kaleetan.

**19:00** Adiskidetze ospakizuna (Gaztelaniaz). San Bartolome parrokian.

## 28 EGUAZTENA

**20:00** Adiskidetze ospakizuna. Arriagan.

## 29 EGUENA

**10:00-12:00** Ostegun santuko banakako penitentzia. San Bartolome parrokian.

**17:00** Azken afariko ospakizuna. Santa Klaran.

**19:00** Azken afariko ospakizuna. Santa Bartolome parrokian.

**21:30** Jaunaren aurreko otoitza. Santa Klaran.

**22:00** Jaunaren aurreko otoitza. San Bartolome parrokian.

## 30 BARIXAKUA

**9:00** Barixaku santuko irakurgaien ordua. Santa Klaran.

**10:30** Gurutze bidea. Maalan.

**11:30** Gurutze bidea. Santa Klaran.

**17:00** Jesusen heriotzaren ospakizuna. Santa Klaran.

**18:00** Jesusen heriotzaren ospakizuna. San Bartolome parrokian.

## 31 ZAPATUA

**20:30** Pazko-bijilia. Santa Klaran.

**21:00** Pazko-bijilia. San Bartolome parrokian.

## 1 DOMEKA

**8:30** Meza. Maalako elizan.

**10:00** Meza. Santa Klaran.

**10:30** Hitzaren ospakizuna. Idotorben eta Sallobenten.

**11:30** Hitzaren ospakizuna. Arriagan eta Aiastian

**11:30** Meza eta prozesioa. San Bartolome parrokian.




**Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo**  
**www.barren.eus webgunean**

**943 744 112**

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR




Zinea (Herriko antzokian)



'El hilo invisible'

24 Zapataua, 19:00 / 22:15 (VOS)  
 25 Domeka, 19:00  
 26 Astelehena, 21:30



'El hijo de Bigfoot'

25 Domeka, 16:30



'Garabandal: solo diós lo sabe'

29 Eguena, 19:00  
 30 Barixakua 21:30



'C'est la vie'

31 Zapataua, 19:00 / 22:15 (VOS)  
 1 Domeka, 19:00  
 2 Astelehena, 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK Egunez: 09:00-20:00  
 Iluntzean: 20:00-22:00  
 Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

23 BARIXAKUA	24 ZAPATUA	25 DOMEKA
Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego
Egunez Garitaonandia	Egunez Yudego	Egunez Yudego
26 ASTELEHENA	27 MARTITZENA	28 EGUAZTENA
Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez
Egunez Garitaonandia	Egunez Barrenetxea	Egunez Garitaonandia
29 EGUENA	30 BARIXAKUA	31 ZAPATUA
Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez * Fernandez * Barrenetxea
Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez * Fernandez
1 DOMEKA	2 ASTELEHENA	3 MARTITZENA
Egunez * Fernandez	Egunez * Fernandez	Egunez * Oruesagasti
Egunez * Fernandez	Egunez * Fernandez	Egunez Etxeberria
4 EGUAZTENA	5 EGUENA	6 BARIXAKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia
Egunez Barrenetxea	Egunez Yudego	Egunez Garitaonandia

\* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagarza (Mendaro) 943 756 142  
 \* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638  
 \* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00  
 La Fuente - Sostoa kalea,10 (Eibar) - 943 254 410

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, martxoaren 25ean, **2:00etan, ordubetetz aurreratu beharko da** ordularia.





## 1942-1945

Jose Ignacio Jauregik eta Agustina Uriak lagatako argazki hau 1942 eta 1945. urteen artean ateratakoa da. Argazkian daudenen izenak Imanol Mendikutek (1927) eta Sabino Lizarralde (1921) (+) eman zituzten 2011ko martxoan. Inauterietako domekan Imanol Vallejoren alde dirua batzen ari zirela Kalebarren plazan ateratako argazkia da. Goiko aldean, San Frantzisko iturria, Txaridunaren kamioneta eta Barrutia eta Etxe-Haundia eraikinen beheko aldeak.

**Ezkerretik hasita, ilaraka biribilean, abesbatzakoak:** Isaac Azpiazu (zuzendaria).

**Lehenengo ilaran:** Felix Canuto Gabilondo, Jose Gurrutxaga *Urkiri*, Faustino Santiestebanekua, Arturo Pepein Zubiaurre, Silbino, Antonio Azpiazu, Jose Mari Igartua, Miguel Sanchez, Ramon Ecenarro *Kuku* eta *Pakorro* Ansola.

**Bigarren ilaran:** German Uriguen *Etxegiña*, Rafael Mugerza *Fafia*, Rafael Areitourtena *Peron*, Roke Gabilondo *Alma*, Enrike Gil Mañua, Luis Mari Zubiaurre, Jose Mari Mugerza *Ruso*, Urban Konde, Pepe Suarez, Agustin Zubiaurre, Jose Jauregi, ezezaguna (pajaritarik gabekoa), Andres Juaristi (taldetik atzerago besoko zapiarekin), Jose Juaristi *Txitxarrua*, Mugerza *Blas Rusuaren* semea, ezezaguna, Manuel Unzueta *Patxika* (paparra zabalik alkandora zuriarekin), Jose Azkarate eta Imanol Solupe.

**Ezkerrean, hostoekin apaindutako Sigmako gurdi gainean:**

**Aurrean,** Mateo Uria *Olaso*. **Jarrita, ezkerretik hasita:** Pepito Goyarzun, Patxi Etxeberria, Sabin Beristain *Kubillo* gitarrarekin, Jose Gabilondo, erdian Julian Iriondo, Roke Arregi, Antonio Arrillaga, Florentino Etxeberria, Jose Zubiaurre *Valle*, Juanito Etxaniz biolinarekin eta erdian Kontxa Mugerza.

**Ikusleen artean ezagututakoak:** Ramon Alberdi iturri aurrean, Juanito Canales (lehenengo auto aurrean), Guillermo Regil eta Santi Kortaberria (bigarren auto aurrean dagoen hirukotean), Ignacio Regil eta Imanol Osoro (Barrutianeko atearen pareko hirukotean, eskuak poltsikoan dituztela). Jose Zabalo gaztea eta Karmelito *Patri* (abesbatzaren eskuman, atzeko aldean). Eskumako jende multzoan, aurreko aldean Ignacio Iriondo, eta besoko zapi zuriarekin dirua batzen Imanol Mendikute.



## *Pablo Gala Merino*

2018ko martxoaren 14an hil zen, 87 urte zituela.  
Haren oroimenez meza izango da, zapatuan, martxoaren 24an,  
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna  
betirako izango dira gure artean.***

Emaztea, seme-alabak eta bilobak



I. URTEURRENA

## *Hasier Etxeberria Canales*

2017ko martxoaren 29an hil zen, 59 urte zituela.

HAIN DU GOZOA  
UDAK ITZALA  
HAIN GOZO  
NEGUAK EGUZKIA  
BEUDE BIAK BETIKOZ GUGAN  
ZU ZAUDEN BEZALA, HASIER

Etxekoak



I. URTEURRENA

## *Mariano Leyaristi San Martin*

2017ko martxoaren 23an hil zen, 91 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,  
martxoaren 24an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Zure falta sumatzen dugu,  
baina gure bihotzetan zaude.***



# San Bartolome,<sup>1</sup>

E L G O I B A R

2 eta 3 logelako  
**4 ETXEBIZITZA**  
trastelekuarekin  
eta lokal  
komertziala

**ERAIKUNTZA  
BERRIA**

**AZKEN ETXEBIZITZA**

Sustatzailea

**ISGA** Inmuebles s.a.

Kudeatzailea

**gesdas**  
gestión de  
promociones  
de viviendas

Finanziatzailea

**LABORAL**  
kutxa

Saltzailea

**A** Arbeloa  
inmobiliaria

Informazioa eta Salmentak

**T. 688 72 41 22**

